

Euskararekin eta errimekin jolasean

Lasarte-Oriako Erra! bertso-eskolako DBH 3. mailako taldearekin elkartu da TXINTXARRI, haren jarduna ezagutzeko / 9

Dokumentala eta mahai inguruan parte hartzeko aukera, martxoko Bizikidetza jardunaldietan / 2

Lesboseko errealitatea argazkien bidez ezagutzeko aukera izango dute herritarrek / 5

Azken 11 urteetan 1.114 pertsonak atera dute gidabaimena euskaraz eskualdean / 3

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek Tokioko Joko Paralinpikoetarako gutxieneko B marka erdietsi du / 10



Erreferenduma itxaropen

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldea sortu dute zenbait herritarrek / 6-8

TXINTXARRI

OGI BERRI
Kalitatea dastatu

Pablo Mutiozabal 3
Tel: 943 36 41 21

zerbitzu mistoa

Betileetako liftinga 17 euro

Baita betileak ilez ile

Lucia ile-apaindegia
Kale Nagusia 67, LASARTE-ORIA
Hitzordua hartzeko: deitu edo 688 85 17 50

Zatoz gu ezagutzera!

Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan

Merkatuko preziorik onenak bermatzen dizkizugu!

barnE

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
www.minialmacenes-barne.com

Bizikidetza-jardunaldiak, martxoan sartzeko

Lasarte-Oriako Udalak bizikidetza-jardunaldiak antolatu ditu. Martxoaren 3an 'Zubiak' dokumentala eskainiko dute, eta martxoaren 4an, berriz, mahai-ingurua izango da, Zuzenbidean doktore diren Ana Isabel Perez eta Laura Pegorekin

Txintxarri

Udalak bizikidetza "normalizatzeko" jardunaldiak antolatu ditu Manuel Lekuona kultur etxean. Jardunaldi horiek, udal-taldeak bizikidetzaren inguruan aspaldidanik egiten ari diren hausnarketa lanaren emaitza direla nabarmendu du udalak, eta herritarrentzako irekiak izango dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaularitzak finantzatuak izango direla ere jakinarazi dute.

Martxoaren 3an izango da lehenengo jardunaldia, asteazkenean. *Zubiak* dokumentala ikusteko aukera izango dute lasarteoriarrek kultur etxeako auditorioan, 18:30ean, gaztelaniaz.

Dokumental horrek Maixabel Lasa du protagonistetako bat. Ia hemeretzi urteren ondoren, Lasak, Juan Mari Jauregiren alargunak, Ibon Etxezarreta, bere senarraren heriotzean parte hartu zuen ETako kidea bazkaltzera gonbidatzen du. Hitzordu hori baliatzen du Lasak, Etxezarretarekin bere senarraren heriotzaz hitz egiteko.

Egoera horretan kokatuko ditu ikus-entzuleak dokumentalak, eta, proiektzioa



Herritarrak, iazko bizikidetza jardunaldietan parte hartzen. TXINTXARRI

amaitu eta gero, Maixabel Lasarekin solasaldia egongo dela ere iragarri dute.

Martxoaren 4rako, berriz, mahai-ingurua antolatu dute kultur etxeako hitzaldi gelan, ordu berean (18:30ean). Euskaraz eta gaztelaniaz izango da eta indarkeria polizialaren biktimen aitortzaren eta erreparazioaren inguruan solastuko dira Ana Isabel Perez eta Laura Pego.

Zuzenbidean doktore dira biak, eta Kriminologiako masterra eginak. Gaur egun EHUko Zuzenbide Penaleko irakasle

titularra da Perez, eta unibertsitate bereko Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea Pego.

COVID-19ari aurrea hartzeko neurriak direla eta, gonbidapenak behar dira jardunaldietan parte hartzeko. Gehienez bi banatuko dira pertsonako, eta kultur-etxean jaso behar dira 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara, eta, sarrerarik eskuragarri geratuz gero, jardunaldien egunean bertan, ordubete lehenago leihatilan ere eskuratu ahal izango dira.



Andatza plaza ondoan jartzen da furgoneta, asteazkenean. TXINTXARRI

Hilean lau asteazkenean jasoko dira hondakin arriskutsuak

Hondakin arriskutsuen furgonetara herritarrek eraman ditzaketan hondakinak zerrendatu ditu udalak

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak gure etxeetan sortzen ditugun hondakin arriskutsuak gaika biltzeko sistema honetan parte hartzera animatzen ditu herritarrak, behar bezala birziklatu eta tratatu ditzaten, ingurumeneari duten eragina murriztuz.

San Marko seko mankomunitateak, furgoneta espezializatu baten bidez, hondakin horiek hilabete bakoitzeko lehenengo, bigarren, hirugarren eta azken asteazkenean biltzen ditu Andatza plazan astero egiten den azokan. Sukaldeko olioak; pintura, barniza, disolbanteak eta kolak; lanparak eta fluorezenteak; etxetresna elektriko txikiak; telefono mugikorak; garbiketarako produktu kimikoak; termometroak; informatikako materiala (monitoreak, teklatuak, eta abar); pilak eta bateriak;

aerosol toxikoak (intsektizidak, lakak, eta abar); automobiletako olioak, bateriak, iragazkiak, izotz-kontrakoak; kamerak eta argazkilaritza materiala; erradiografiak; herbizidak eta intsektizidak; inprimagailuetako kartutxoak eta tonerak; jostailu elektriko eta elektronikoak eta CDak eta DVDak.

Ohartarazi dute etxean sortutako hondakin arriskutsu horiek osagai ezberdinak nahastu gabe (berezi likidoen kasuan) eraman behar direla furgonetara. Hondakin arriskutsuak birziklatzea baino, saihestea hobe dela ere gogorarazi du Lasarte-Oriako Udalak.

Sendagaien ontzi hutsak edo sendagai-hondarrak dituztenak, beharrezkoak ez diren sendagaiak edota iraungita daudenak erabilera-orriarekin batera farmazietan utzi behar direla ere ekarri dute gogora.

Protesta eta aldarriak, klaxon soinuekin tartekatuta

Ostalaritza Lasarte-Oria elkarteak prentsaurrekoa eskainiko du gaur, ostirala, hilak 26, 18:00etan Okendo plazan

Txintxarri

Ostalaritza aurrera! plataformak ekintza berri bat egin zuen iragan asteko larunbatean. Orduko horretan, errepidera atera zituzten euren aldarriak eta Lasarte-Oriatik

Donostiara eraman, auto-karabanan. Herriko hainbat profesionalekin batera, inguruko beste herri batzuetakoek ere parte hartu zuten protestan. Guztiak Hipodromoan elkartu ziren

eta kotxeetan jarri zituzten zenbait babes nahiz salaketa mezu. *Nik ostalaritza babesten dut* bezalako mezuak irakur zitezkeen. Auto bat besteari atzetik abiatu ziren Donosti aldera, Lasarte-Oriatik.

Intxaurrendora bidea aurreikusitakoa baino beranduxeago hartu zuten, Oriaranzko norabidean. Klaxon soinuekin tartekatuta, bozgorailuko mezuek konponbideak eskatu zituzten sektorearentzat, besteak beste,

lan-baldintza eta diru-laguntza duinak.

Prentsaurrekoa Okendo plazan

Ostalaritza Lasarte-Oria elkarteak prentsa-agerraldia egingo du gaur, ostiralarekin, otsailak 26, 18:00etan Okendo plazan. Herritarrak kontzientziatzeko kanpaina bat aurkeztuko dutela iragarri dute, eta, horrez gain, iragan astean udalak egindako adierazpenei ere erantzuteko asmoa agertu du eragile horrek.



Larunbateko argazki bat. TXINTXARRI

Gidabaimena euskaraz ateratzeko bultzada

Gidatzeko agiria euskaraz ateratzeko egitasmoak 11 urte daramatza martxan: eskualdeko sei udalek eta autoeskola ugari parte hartzen dute. Tarte horretan 1.114 pertsona animatu dira atal teorikoa euskaraz ikastera, eta azterketa hizkuntza horretan egitera

Txintxarri

Lasarte-Oriako, Urnietako eta Usurbilgo Euskara zinegotziek, Jon Antxordokik, Mikel Artolak eta Oxkar Santamariak, hurrenez hurren, azaldu dute "ezinbestekoa" dela belaunaldi gazteei jardura "garrantzitsu bezain erakargarria" euskaraz eskaintzea. Duela 11 urte jarri zuten martxan proiektua eskualdeko sei udalek: urte horietako bakoitzean, batez beste, 101 pertsonak atera dute gidabaimena euskaraz (guztira, 1.114 izan dira).

2020an gidabaimena euskaraz ateratzera animatu diren ikasleen artean zozketa egin dute aipatu hiru herrietako euskara zinegotziek, Urnietako Lekaio kultur etxean. Lasarte-Oriako saria Larrantz Izagirre Inza gazteak irabazi du. Bederatzi autoeskolak parte hartu dutenez egitasmoan, beste hainbeste sari eman dira; 400 eurokoa izan da horietako bakoitza. Andoainen, Astigarragan, Lasarte-Orian, Urnietan eta Usurbilen sari bana zozkatu dute; Hernanin, berriz hiru.

"Euskararen aldeko hautua egiten duten pertsonen kopuruan jauzi kualitatibo bat ematea kostatzen ari zaigu", onartu dute euskara zinegotziek. 2019ko datuak eta iazkoak alderatuz



Ezker-eskuin: Jon Antxordoki, Oxkar Santamaria eta Mikel Artola. URNIETAKO UDALA

gero, ikus daiteke beherakada egon dela, 37 ikasle gutxiago aritu baitziren 2020an. Dena den, "gustura" daude proiektua egiten ari den bidearekin, arestian esan bezala, 11 urte hauetan 1.114 pertsonak atera dutelako gidabaimena euskaraz.

"Gauza dezente" hobetzeko

Hori horrela izanik ere, "gauza dezente" hobetu behar direla nabarmendu dute Antxordokik, Artolak eta Santamariak. Terminologia bateratu bat sortzea eta kalitatezko

azterketa-ereduak garatzea aipatu dituzte. Eskualdeko udalak egiten ari diren lana goraiatzearekin batera, horien gainetik dauden administrazioek "apustu sendoa" egin behar dutela adierazi dute.

Azterketa teorikoak euskaraz egiteko aurrerapausoak eman izanagatik, proba praktikoetan jarraipena izan behar duela azaleratu dute euskara zinegotziek, eta baliabide teknologikoetan euskara erabiltzeko aukera bermatu behar dela ere bai.



NEURE KABUZ

JEXUX ARTETXE

Lehenak irakatsiak kontutan

Hitz bihurtu ezin daitekeen ideia ez dela ideia ona, eta ekintza bihurtzen ez den hitza baliogabea dela esan ohi zuen Arizmendiarrietak. Euskotarron sen praktikoa aipatzen bazuen ere, horrekin ez zion garrantzirik ukatu nahi gogoeta egiteari. Bizipenak, saihetsezineko premia bezala gehienetan, ideien aurretik zetozela aitortzen zuen. Beraz, ez zen beharizan errealetatik aparteko ideia abstrakturen zalea, baino berak ez omen zuen ezta ere iparririk gabeko ekintzaitzearik sustatu nahi.

Errealitatearen azterketa eta jokabidearen aurreko oldozketa egitea aholkatzen zuen erdizkako euskotar eta herrizale ez izateko. Gure herriaren etorkizungintzari eustekotan, ez letorkiguke batere gaizki pentsamolde hori gaur bizi dugun errealitate kritikoari aplikatzea. Baina, pentsa dezagun elkarrekin.

Jakina, gizartearen arlo ezberdinetan aldakuntza sakonaren beharra ikusten duenak ezin du lasai egon berrikuntzaren inguruko inolako hausnarketarik egin gabe. Aztoramena nagusitzen ari den mundu pandemikoan, dena apurtzeko joera duen jendea agertzen ari bada ere, pentsatu egin behar dugu halaber nola eutsi behar diogun funts zaharretik kontserbatzea merezi duten balio eta eraketa modu ugariak. Sortu behar den berria ezin baita aurrekoaren errautsetatik sortu. Ez al dugu gure artean azken gertatuetatik nahikoa eskarmentatu?

Gure historiaren garabidean, kalte handietatik babestearen beharretik sendotu da auzokideen elkartasuna. Auzoaren heldutasun-neurririk zehatzena bizilagunek auzolanerako azaldu duten borondatea dela esan daiteke. Hori da iraganak gure geroa eraikitzeko utzi digun irakaspenik hilezkorrena. Arrazoi du lehendakariak auzolanerako deia egiten duenean. Orain, aspaldi ez bezala, guztion ongia dagoelako kolokan. Pentsa dezagun orainaldian nagusitu daitekeen joerak marka dezakeela gure etorkizuna. Ez gaitzeen bakoizkerietan erori, ez ditzagun taldekeriak edo alderdikeriak piztu. Elkarri ez kaltetzeko, bil gaitzeen auzolanaren inguruan.

Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi gogoratuko dituzte

Igande honetan, otsailak 28, hemezortzi urte beteko dira Argi Iturraldek eta Iñaki Balerdik auto-istripu batean bizia galdu zutenetik; Juankar Balerdi senidea bisitatzea zihoazen Almeriako espetxera. Larunbatean, hilak 27, mendi-martxa egitera deitu ditu

herritarrak Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak. Teresategiko oroitarria joango dira. Zutabe bat Okendo plazatik abiatuko da, 10:00etan; bestea, aldiz, Zabaletatik, 10:15ean. Talde-argazkia aterako dute geroago, Okendon bertan, 12:00etan.

Ekitaldi horren aurretik, ostiralean, hilak 26, *Azken Ostirala* egingo dute herrian zehar, udaletxe paretik abiatuta, 20:00etan.



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

Xiberoako ikastolak laguntzeko saski bat zozkatuko dugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eman izena otsailaren 28a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean edo 646. 82 44 66 (whatsapp)

GIZA BALOREETAN ESPEZIALISTA

LIBURUAREN AURKEZPENA

IZENBURUA: GRACIAS

IDAZLEA: CARMEN ATALAYA REVILLA

EDITORIALA: UNIVERSO DE LETRAS

ISBN/13 : 9788418570544.

PREZIOA: 14 euro

Aurrez aurreko zein online ZERBITZUAK, GAZTELANIAZ: Aisialdi adimendua. Hazkunde pertsonalerako, gaixoak animatzeko, senideren bat gaixorik duten familientzako, desgai-tuentzat, abenturazaleentzat eta abar sortutako zerbitzuak.

www.lamagiadelosancestros.com

Youtube: Servicios Socioculturales CAR.

Harremanetarako: 620-19-34-47



Inauterietako argazki-lehiaketako irabazleak

Jakin dugu LasARTE-Oria argazki-lehiaketako irabazleak nortzuk izan diren. Zorionak guztie! Artista hutsak zarete! Eskerrak eman nahi dizkizuegu: argazkiak bidali dituzuenoi, bozkatu duzuenoi, epaimahaiko kideoi (Ione Artola, Isaac Farre, Ana Eceiza eta Cesar Marcos) eta baita irakurleoi ere, jakina. Hurrengo urteko inauterietan ikus gaitzela berriro kalean, elkarrekin dantzan eta giro ederrean!

FAMILIAK

ARGAZKIA: 'POP ART'

SARIA: 50 euro LIBRERIA MAITE dendan erabiltzeko



ARGAZKIA: 'IRRIBARRE MARGOTZAILEAK'

SARIA: 50 euro GOXOKIS GOXUA dendan erabiltzeko



GAZTEAK

ARGAZKIA: 'BETI XALTXANI!'

SARIA: 50 euro GOXOGI dendan erabiltzeko



ARGAZKIA: 'GAILETEN MUNSTROAK'

SARIA: 50 euro JAIZKIBEL HARATEGIAN erabiltzeko



HELDUAK

ARGAZKIA: 'AGATHA RUIZ DE LA PRADA'

SARIA: 50 euro PATXI LARRAÑAGA harategian erabiltzeko



ARGAZKIAK: 'FRIDA' ETA 'EL GRITO' (Epaimahaiaren bozkak jasota, berdinketa egon da; biak irabazle, hortaz)

SARIA: 25 euro bana ORE AMA obradorean erabiltzeko



LIBRERIA MAITE

Geltoki kalea 12, Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 27 91

GOXOKIS
GOXUA
DENDA

Geltoki Kalea 9 behea

GOXOGI
zure betiko denda

Geltoki Kalea, 6
Tel.: 943 370 848
20160 LASARTE-ORIA

Harategia
Urdaitegia
jaizkibel
Carnicería
Charcutería

HARATEGIA | URDAITEGIA | ERAMATEKO JANARIA
| ONTZIRATUA | EDARIAK | BARAZKIAK | FRUTA

Jaizkibel plaza, 11
Lasarte-Oria
Tel.: 843 67 40 71

Taka Larranoea

Kale Nagusia 39
Lasarte-Oria
Tel. 943 37 26 68

ORE
AMA

Beko Kale Bidea, 8
943 57 36 85

Sudurgorrien emanaldia ukatzeko arrazoirik ez

Iruñeko Udalak bertan behera utzi zuen Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 2019ko azaroan Baluartean egin behar zuten emanaldia, kontratuan irregulartasunak zeudela argudiatuz. Nafarroako Administrazio Auzitegiak, ordea, pailazoen alde ebatzi du orain

Txintxarri

Nafarroako Administrazio Auzitegiak arrazoiak eman die Lasarte-Oriako Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei. 2019. urteko azaroaren 29an, San Saturnino egunean *Bizi dantza* ikuskizuna eskaini behar zuten Iruñeko Baluarte aretoan, eta azken urteetan bezala, orduan ere iruindarrek aretoa goraino bete eta irri, dantza eta kantu eginaz hitzordu alai bat igartzeko asmoa zuten. Ezinezko gertatu zen, ordea. Navarra Suma buru duen udal gobernuaren aginduz, bertan behera geratu zen ikuskizuna (2019ko abenduaren 21ean Anaitasuna alokatu zuten

pailazoei eta bertan egin zuten emanaldia). Udalak aurrez pailazoei sinatutako kontratuan irregulartasunak zeudela argudiatu zuen Navarra Sumak. Erabaki hori "bidegabekeria bat" zela baloratu zuen pailazo taldeak, eta Nafarroako Administrazio Auzitegian helegitea jartzea erabaki zuten. Orain, urtebete beranduago jaso dute auzitegiaren erabakia. Navarra Sumaren argudiaketa deuseztatu egin du auzitegiak, sudurgorriei arrazoi emanaz.

Hiru arrazoi pailazoen alde

Hiru arrazoi eman ditu Nafarroako Administrazio

Auzitegiak pailazoen alde egiteko; horrela azaldu dizkio TXINTXARRI-ri Joxemari Agirretxe, Porrotx pailazoak. "Lehenengo arrazoiak azaldu dute kontratua erregularra zela. Ez zuela espediente berezirik behar aurrera eramanez ahal izateko, kopuru ekonomikoa txikia zelako eta, beraz, halako prozedura normal bat eramatea nahikoa zela. Bigarren arrazoiak dio irizpide kultural eta artistikoak erabili zituela udaletxeak kontratua aurrera eramateko eta ez zegoela inongo kutsu ideologikorik horretarako. Hirugarren eta azken arrazoiak azaldu dute taldearen lanak eta



Pirritx, Porrotx eta Marimotots Bizi dantza ikuskizunaren saio batean. KATXIPORRETA

eskaini behar zuten ikuskizunak ez zuela urratzen inongo haurren eskubiderik ezta balorerik ere. Nola izango da horrela? Justu kontrakoa egiten dugu pailazook, haurren eskubide eta baloreak bultzatzen ditugu, euskaraz eta koloretan".

Pirritx, Porrotx eta Marimotots "oso pozik" agertu dira Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenarekin:

"Agerian geratu da Navarra Suma alderdiak euskararen, euskal kulturaren eta balore aurrerakoen kontra daraman politika eta hori, gainera, inpunitate osoz egiten dutela". Indemnizazio "oso-oso txikia" jaso dute, 250 eurokoa eta Iruñerriko haurreskolak euskaraz izan daitezkeen lanean dihardutenentzat bideratuko dutela jakinarazi dute pailazoei.

Lesbos eta Lasarte-Oria arteko elkartasun haria

Lesboseko errefuxiatuen kanpamentuko egunerokoaz sentsibilizatu eta bizi duten egoera latza salatze argazki erakusketa antolatu dute Miren Bardaji eta Yousef Alshewailik. Antonio Merceron izango da, martxoaren 1etik 14ra bitarte

Txintxarri

Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesboseko ekimenak ekitaldi hunkigarri bezain goxoa egin zuen abenduaren 10ean, Manuel Lekuona kultur etxean. Miren Bardaji herritarra Greziako Lesbos irlako errefuxiatuekin egiten ari den lana gizarteratzeko asmoz antolatu zuten egitasmoa, eta, horrekin batera, Bizipozaren barruan dauden elkarte ezberdinen aurkezpena ere egin zuten. Orain, orduko ekimenaren balorazio bat egin dute, eta hori herritarrekin partekatu nahi izan dute. Eskerrak eman dizkiete "modu askotan" ekimenarekin bat

egin zutenei: "Ederra izan da egindako bidea".

Abenduaren 10ean kultur etxean egindako ekitaldiko parte-hartzea, elkartasuna eta inklusioa oinarri hartuta, egunerokoan hainbat alorretan lanean dabiltzan herritarren arteko elkarlana nagusitu zela azpimarratu dute: "Aniztasuna, elkartasuna, inklusioa, elkarlana eta goxotasuna nagusitu ziren".

Orduko ekitaldira gerturatzeko aukerarik izan ez zutenek, badute bertan aurkeztutakoa ikusteko aukera oraindik. Izan ere, ekitaldia bideoz grabatu zuen lantaldeak, eta honako bi helbidetan ikusi daitezke.



Erakusketako irudi bat. M.BARDAJI

Ekitaldiaren lehenengo zatia, <https://vimeo.com/498083892> helbidean dago ikusgai, eta, bigarren zatia, berriz, <https://vimeo.com/50048975> helbidean.

Diru-bilketarekin ere pozik

Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesboseko ekimenak Bizum kontu bat ere jarri zuen martxan ekarpen ekonomikoak egin nahi zituzten herritarren eskura eta "oso pozik" agertu dira jasotako babesarekin. Jakinarazi dute, guztira 2.890 euro bildu dituztela, eta eskerrak eman dizkiete ekarpen ekonomikoak egin dituzten guztiei.

Bildutako diru hori dagoeneko Lesboseko bideratu dutela ere azaldu dute: "Lesboseko errefuxiatuen kanpamentuan lanean ari den Miren Bardaji herritarren esku jarri dugu, eta, berak, Lesbosen beharrak dauden egitasmoetara bideratu ahal izango du diru hori".

Argazki-erakusketa martxoan

Iragarri zuten iazko abenduan kultur etxeko ekimenaz eta diru-bilketaz gain, beste hainbat ekimen sustatuko zituztela, hala nola

argazki-erakusketa bat, errefuxiatu-esparruko egoeraz sentsibilizatu. Bada, martxoan izango da erakusketa hori, Antonio Mercero aretoan. Bardaji eta bere lagun Yousef Alshewailiren artean antolatu dute, Lesboseko errefuxiatu kanpamentuetako egoera gizarteratu, ikusarazi eta salatze helburuarekin.

Hogeita bat urteko errefuxiatua da Yousef. Iraketik ihesi, 2018ko otsailean iritsi zen Greziara, eta, orduz geroztik Lesbos bihurtu da bere bizileku. Argazki kamera eskuartean hartu, eta kamera atzean jartzea izan da Yousefentzat "askotan irtenbide bakarra". Konturatu zen argazkien bitartez kontatu zezakela Lesboseko errefuxiatu kanpamentuetako jendearen egunerokoa: "Polita, triste edo itsusia, dena kontatu nahi dizuet, barrutik".

Martxoaren lehenean irekiko ditu ateak, eta 14ra arte izango da bertaratzeko aukera, ondorengo ordutegian: astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan, berriz, 11:00etatik 13:00etara. Sara Etxeberriak abenduko ekitaldian egindako ilustrazioa ere bertan egongo da ikusgai.

Hitzartutako erreferenduma noiz helduko zain

Ahaztutako gatazkaren gaineko arreta mantendu eta sahararrei babes emateko xedez abiarazi dute zenbat herritarrek Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldea. Bihar 45 urte beteko dira sahararrek independentzia aldarrikatu zutenetik, beste behin gerran murgilduta

Maitane Aldanondo

Aurten hiru hamarkada osatuko zituen Fronte Polisarioak eta Marokok sinatutako su-etenak. Halakorik ez da gertatuko, azaroaren 13an bertan behera utzi baitzuten gerra-hotsak berriz ere bueltatuz. Mendebaldeko Sahara eta Mauritania arteko G u e r g u e r a t e s k u a l d e desmilitarizatuan amaitzen da marokoarrek eraikitako harresia, eta handik igarotzen den errepidea erabili behar dute merkantzia-kamioiek. Errepidea tratatzen ari ziren manifestarien protesta desegiteko sartu zen Marokoko armada, eta Fronte Polisarioak –Mendebaldeko Sahararen askapen nazionalerako mugimenduak– 1991ean sinatutako akordioa eten zuen, militarrek zibilak erasotu zituztelako.

Aspaldiko gatazka baten azken atala da. 40 urte labur azaltzeak dakartzan ñabardura faltak onartuta, bilakaera honakoa da: Nazioarteko presioak eta Fronte Polisarioaren borroka armatuak bultzatuta, Espainiak onartu zuen deskolonizazio prozesua hasi eta 1975ean autodeterminazio erreferenduma egitea. Maroko aurka zegoen eta Martxa Berdea delakoan Espainiaren kontrolpeko zenbait lur okupatu zituen. Egun batzuk geroago, Espainiak, Marokok eta Mauritaniak akordio bat sinatu zuten, bi herrialde afrikarrei Sahararen gaineko aldi baterako administrazioa emanez, galdeketa egin artean. Nazioarteko Zuzenbidearen ikuspegitik, horrek ez du inolako baliorik eta egun Espainiak jarraitzen du potentzia administratzaile izaten. 1976ko

otsailaren 26an Espainiak Saharako lurak utzi zituen eta Marokok ipar-mendebalde okupatu zuen. Fronte Polisarioak, berriz, otsailaren 27an aldarrikatu zuten Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) eta Aljeriaren babesarekin Maroko eta Mauritaniaren kontrako gerra hasi zuen. 1979an Mauritaniak, garaituta, bake akordioa sinatu zuen Fronte Polisarioarekin, aldi berean, ordea, Marokok okupatu egin zuen Mendebaldeko Sahara eta saharar askok erbestera bidea hartu zuten. 1991n su-eten sinatu zuten bi alderdiek NBE bitartekaritzaarekin eta 1992ko otsailean erreferenduma egingo zela ezarri. Halakorik ez da izan.

Mendebaldeko Sahara 270.000 kilometro karratuko herrialdea da, milioi erdi bat pasatxo biztanle dituena. Basamortua da nagusi, babesgabea izanagatik, ordea, lehengaietan ugaria ere bada, bereziki, ongarrietarako erabiltzen den fosfatoa du –Marokoren esportazioen % 20 inguru– eta arrantza aberatseko 1.000 bat kilometroko kostaldea. Herrialdea Marokok altxatuko harresiak erdibitzen du, kilometro askotan pertsonen aurkako minez josia dagoena –zazpi bat milioi, munduan mina gehien dituen zonaldeetako bat da–; biztanleria hirutan zatituz:

IA MENDE ERDIZ LUZATZEN ARI DEN GATAZKAREN ATAL BERRI BAT DA EGUNGO GERRA

Fronte Polisarioaren kontrolpeko lur askeak, lurralde okupatua eta Tindufeko kanpalekuak (Aljeria).

Nahiz eta gerrak jarraitzen duen, berriro komunikabideetatik ia desagertu da gatazka. Horren berri eman eta ahal duten neurrian laguntzeko asmoz duela hiru hilabete Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldea sortu zuten zenbait herritarrek. Horretarako zergatiaz eta sahararrek bizi duten egoeraz mintzatu da TXINTXARRI Tomax Arruti kidearekin, Lasarte-Orian bizi diren hamabost bat sahararretako bat den Salec Mohamedekin eta guda frontean izan den Mustafa Sid Bashir kazetariarekin.

Azaroan erabaki zenuten Sahararekin elkartasuna Lasarte-Oria taldea sortzea. Zerk bultzatu zintuzten?

Tomax Arruti: Su-etenaren amaierak. Herri sahararraren alde lan egin duten elkarte eta mugimenduetan ibilitako jendea gara: Oporrak Bakean, Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin bat... Hamasei-hemezortzi lagun batu gara, bakoitzak gure jarduna alor desberdinetan egin dugu, baina azaroaren 13ko gertakarien ondoren elkartzea erabaki genuen eta Mendebaldeko Sahararen bizi den egoera salatzea; gatazka bera, gerran baitaude. Babesa beti eman diegu sahararrei, baina, orain, % 100ean egon behar dugu beraiekin. Gainera, komunikabideetan ez dago informaziorik. Facebooken gaude eta iturri ofizialetatik iristen zaigun informazioa bertatik zabaltzen dugu.



Ezkerrean, herrian bizi den Salec Mohamed sahararra; erdian, Tomax Arruti eta bere

Lasarte-Oria eta SEAD arteko harremana aspalditik dator, beraz.

Salec Mohamed: 20 urte baino gehiago dira. 1988an Donostiako aterpetxean egindako argazkiak ikusi ditut eta Lasarte-Orian egondako bi haur daude.

Inor batu al zaizue?

T. A.: Hiruzpalau lagunek hasi genuen zerbait egin behar zela ikusita. Herrian babes ematen gabilzanok elkar ezagutzen dugu eta sare bat sortu dugu, interesa duen edonori zabalik dagoena, noski. Jendea apuntatu da informazioa izateko.

Zerbait egin behar zenutela esan duzu, zein da zuen helburua?

T. A.: Ni parte izan naizen taldea beti gatazkaren alde politikoan aritu da. Uste dut oso ondo dagoela

"ERREFERENDUMA EGIN BEHAR DUTE ETA SAHARARREK ERABAKI DEZATELA ZER NAHI DUTEN"

eta beharrezkoa dela elikagaiak Mendebaldeko Saharara bidaltzea, baina arazoak oinarri politikoa du, aitortu behar den gatazka politiko bat dago. Hori salatzen dugu eta Estatu espainiarra aldagai giltzarria dela. Gu erroetara goaz: erantzun politikoa eman behar zaio, erreferenduma egin behar dute eta sahararrek erabaki dezatela zer nahi duten. Gure helburua erabakitze eskubidea izan dezatela da.

Hamarkadatan luzatzen ari den egoeraren inguruan gizarteak tentsioa mantentzea ez da erraza izango...

T. A.: Ez, baina azaroan egin genuen elkarretaratzea orain artekoan jende gehien bildu duena da. Sahararen aldeko taldeetan gabiltzanez gain, lasarteoriarrak eta sahararrak mobilizatzeko gaitasuna izan genuen. Izugarria izan zen.

Bihar SEADaren aldarrikapenaren 45. urteurrena da. Urtero bezala, udalak zuen mozioa onartu du eta bandera jarriko du udaletxean. Horrez gain, zer prestatu duzue?



seme Unax, eta eskuinean, Mustafa Sid Bashir kazetari sahararra. TXINTXARRI

T.A.: Elkarretaratzea egingo dugu 20:00etan Okendon, *Maroko Saharatik at. Independentzia* lelopean. Herritar guztiak gonbidatzen ditugu parte hartzera. Horrez gain, multinazional espainiarrak Mendebaldeko Saharan egiten ari diren espoliazioa kontatzen duen *Ocupacion S.A.* dokumentalaren emanaldia egin nahi genuen otsailaren 27ko egitarauaren barruan, baina agenda kontuengatik eta Juan Soroeta zuzendaria bertan egotea nahi dugulako, apirilera utzi dugu. Halaber, lasarteoriatarrei eta ostalariei deia egiten diegu balkoietan Mendebaldeko Sahararen bandera jartzeko. Norbaitek behar badu, Furia Beltza tabernan salgai egongo dira 10 eurotan. Gauza gehiago egin nahi genituen, baina pandemiak mugatu egin du. Pena da.

la 30 urteko su etenaren ondoren, gerra piztu zen azaroan. Lehen asteen ondoren, komunikabideetan

agertutako informazioa oso urria da. Zer dakizue hango egoeraz?

Mustafa Sid Bashir: Saharako gudarosteak eta Marokoko armada okupatzailea borrokan ari dira azaroaren 13tik. Aldi berean, giza-eskubideen urraketa latzak egiten ari dira okupatutako lurretan. Adibidez, etxe barruko arrastatzean dute Sultana Khaya ekintzailea –Giza Eskubideen Aldeko Liga Sahararraren lehendakaria– eta berriro erasotu dute. 2006an begi bat galdu zuen jipioen ondorioz, eta orain bestea galtzeko arriskua du.

S.M.: Hiru hilabetez etxean itxita dute poliziek eta militarrek.

T. A.: Mendebaldeko Sahara okupatua mendekurako erabiltzen ari dira biztanle

LARUNBATEAN SEAD-EKO BANDERA JARTZEKO ESKATU DIETE OSTALARIEI ETA HERRITARREI

Oporraldien baketik, gerran borrokatzera

Oporrak Bakean programaren eskutik, Mendebaldeko Saharako haur ugari aste batzuek bizitokiko egoera latza utzi eta oporraldia Euskal Herrian igarotzeko aukera izan dute. Tomax Arrutik azaldu duenez, Lasarte-Orian izandako batzuk koskortu dira jada, eta egun, Marokoren aurkako gerran borrokan ari dira. "Izen-abizenak dituzte, hemengo familietan egon dira eta beraien bizitza arriskuan jartzen ari dira euren askatasuna eta lurra defendatzeko". Mustafa Sid Bashir kazetariak ia hilabete igaro du jaioterrian eta handik ekarritako lekukotza etsigarria da. "Saharako gazteek ez dute bakea nahi, gerrara joan beste aukerarik ez dute. Posible dena egin nahi dute gainerakoak bezala bizitzeko. Ez da beraien errua, nazioartearena, NBERena, superpotentzia, baizik".



hegoaldera, nazioarteak gerran daudela badaki, ez du errepide hori erabiliko. Arrazoi askorengatik Marokok ezin du esan, baina ni han izan naiz ia hilabetez, 27 egun.

Ezkutuan gelditzen den heinean, zerk kezkatzen zaituzte?

M.S.B.: Okupatutako lurrak. Han dauden sahararrek ezin dute hitz egin, ezin dute nahi dutena esan, jazarri egingo baitituzte. SEADeko banderarekin ateratzen badira, espetxeratu egingo dituzte beste arrazoi batzuegatik. Egoera oso txarra da han eta gerrarekin are gehiago. Bestalde, komunikabideei egindako itxiera, sarrera debekatu zaie. Kazetariak ezin dira han sartu ez badute Marokok nahi duena esaten.

T.A.: Nazioarteko komunikabideak ezin dira okupatutako lurretan

"EZ DUGU ZORTERIK. HERRI TXIKIA GARA, LUR HANDIA, LEHENGAIETAN ABERATSA..."

sartu, baina herrialdeek ez dute presionatzen sarrera galarazten zaiela salatzen.

M.S.B.: Gatazka honetan ezkutuko gauza asko daude. Ulergaitzak direnak. Hogei kazetari estatubatuarrei ez diete sartzen utzi eta AEBk ez du ezer esan.

T. A.: Okupatutako zonaldera joango banintz, pasaportearen Tinduf ikusten badidate, agian arazo bat izango nuke. Badakitelako nondik natorren.

M.S.B.: Ez dugu zortetik. Herri txikia gara, lur handia, lehengaietan aberatsa fosfatoa, arrantza... gauza asko daude Mendebaldeko Sahararen barruan. Denek nahi dute lur hori, bertako baliabideak. Baina ez gara bakarrik munduan. Baliabide asko dituzten herri txikiak beste batzuek hartu nahi dituzte.

Nola ikusi dituzu sahararrak?

M.S.B.: Gazteak gerrara joango dira, beste aukerarik ez baitute. SEAD Nazio Batuen Erakundearen (NBE) bake planean sartu zen konfiantza zuelako munduan, baina 1991etik gaur egun arte, 30 urtetan, ez

dute ezer egin. Marokok ez du erreferenduma egingo, Sahara Marokorena izango dela dio. Salec eta biok bezala errefuxiatuen kanpalekuetan bizi direnak, inork nahiko ez lukeen egoeratan daude. Munduak sahararrak bakarrik utzi ditu eta ez du beraien alde ezer egiten kanpalekuak utzi eta beraien lurrera itzul daitezten. Egun, gazte gehienek gerra besterik ez dute nahi, nazioarteak bakarrik utzi gaituelako sahararrek beraiengan konfiantza handia genuen une batean.

Egoera berez zaila bada, pandemiaren eragina ere gehitu behar zaio.

M.S.B.: Bizi kalitatea okerragoa da. Aljerian ezin da sartu eta sahararrek daukatenarekin bizi behar dute.

T.A.: Kanpalekuak une honetan itxita daude, kooperanteak ezin dira sartu, elikagai-karabanek arazoak dituzte heltzeko... Bestalde, Sahara Maratoia lasterketa solidarioa (www.saharamarathon.org) bertan behera gelditu da COVIDaren ondorioz, eta hori diru-iturri bat da. Aurten bertuala da eta 15 euroko izen ematearen zati bat sahararren proiektuetara edo haien beharretara bideratuko dute. Korrika eginda edo egin gabe proiektua lagun daiteke 25 euroko pack solidarioarekin. Kanpalekuetako egoera hobetzen laguntzeko modu bat da. Euskal Herrian talde bat daukagu eta nik pare bat aldiz parte hartu dut. Asmoa genuen Zarautzen batu eta elkarrekin korrika egitekoa, baina gauden egoeran ezin garenez mugitu hori ere ezingo dugu egin.

Abenduan Trumpek Marokori aitortu zion Mendebaldeko Sahararen gaineko subiranotasuna. Hainbat politikari estatubaturrek eskatu diote Joe Bideni "akatsa" zuzentzeko. Hala bada, Marokorengan presio eragin dezake?

M.S.B.: Ez du ezer aldatuko. Trumpek Sahara Maroko dela esateak ez du ezer aldatu. Sahararrek badakite zein den bidea.

Espainia egoeraren erruduna dela behin eta berriro esan duzue urteotan. Zer egin beharko luke irtenbidea lortzeko bidean?

M.S.B.: Gatazkaren erantzulea eta lehen erruduna da. Joan egin zen Mendebaldeko Sahara bitan banatuta, Maroko eta Mauritania artean, bertan herririk ez balego bezala.



Nazioarteak Mendebaldeko Sahara "abandonatu" duenez, bide bakarra gerra dela uste dute gazte askok TXINTXARRI

T.A.: Deskolonizazio prozesua gaizki egin zuen, salduta utzi zituen espainiar hiritartasuna zuten sahararrak. Horrek nazioarteko gatazka bat izan beharko luke!

M.S.B.: Espainia horrela joan izan ez balitz, erreferenduma egin izan balu, Portugalek Timorren egin zuen bezala...

Zer egin beharko luke, beraz?

M.S.B.: Posizio ona du sartzeko. Gaur egun, Mendebaldeko Sahararen arduraduna da eta erabaki dezake erreferenduma egitea. Baina ez du egingo, Marokoko eta Espainiako sistemen arteko harremanagatik. **S.M.:** Marokoren beldur da. Espainiako eta Maroko erregen artean dauden harremanak, tratuak...

KANPALEKUETAKO EGOERA HOBETZEN LAGUNTZEKO SAHARA MARATOIA BIRTUALKI EGINGO DUTE AURTEN

M.S.B.: Ceuta, Melilla, migratzaileak... Bide horretan sartzen bada Espainia, Euskal Herrian, Katalunian ahots batzuek ere eska dezakete galdeketa... Zaila da. Sahararrek badakite ezin duela ezer egin.

T.A.: Administratzailea da, baina interes asko daude tartean. Espainiako hauteskundeetan presidente hautatua den hautagaiak atzerrira egiten duen lehen bidaia ofiziala Marokora izan ohi da. Errefuxiatu kanpalekuetan egon naizenetan oinarritzko politikariei dagokienez, alderdi guztietako ordezkariak topa ditzakezu. Orain, pentsatzen dut Voxekoak ez direla egongo... Oinarrian daudenek babesa ematen diete sahararrei, baina alderdi barruan gora egiten duzun heinean, aginduak hartzen dituztenetara heltzean, moztu egiten da. Barne-eztabaida sortu beharko litzateke. Salagarria da. Sahararren alde banago eta nire gainekoek ez badute babesten, barne-eztabaida piztu

beharko litzateke, mugitzeko. Udalerriari dagokionez, guk babesa daukagu, bandera jarriko dutela badakigu, baina Espainiako gobernua falta da. Zerbait egin behar du. Sahararrek urte pila daramatzate inork nahi ez duen leku batean. Lotsagarria da.

Zer egin dezakegu hemendik han daudenei laguntzeko?

M.S.B.: Orain bozgorailuak behar ditugu, sahararren egoerari buruz hitz egingo duten ahotsak. Gai asko daude lantzeko. Komunikabide arabiarrek Marokoren alde daude; herrialde arabiar gehienak, Aljeria izan ezik, marokoarrekin, AEBak, Frantzia... Komunikabide gehienak estatubatuarrek, frantsesak edo arabiarrek dira. Honetaz hitz egitea behar dugu.

"HERRI BAT BADAGO, ZERBAIT NAHI BADU, ETA ELKARREKIN BADAGO, HELDUKO DA ERREFERENDUMA"

T.A.: Hiru fronte daude. Batetik, gatazka gunea bera, okupatutako lurra eta kanpalekuak. Komunikabideetan ez dagoen gatazkarik ez da existitzen eta hori da gertatzen ari zaiena.

M.S.B.: Saharari buruz asko dakiten pertsonak hartu gai ezberdinei buruz hitz egin dezaten: giza eskubideez, gerraz, kanpalekuen egoeraz, Sahara bitan banatzen duten harresiez... eta egun berean hitz egin dezatela zenbait komunikabideetan. Sare bat sortu.

S.M.: TXINTXARRI oso bat egin Mendebaldeko Saharari buruz. Lasarte-Orian bada jende aktiboa, urtero haurrak hartzen dituen, elikagai karabanetan parte hartzen duena... Askok badakite Saharari buruz, baina beste batzuek ez. Hori eginda, jende gehiagok jakingo du.

Salec, urte batzuk badaramatzazu Lasarte-Orian bizitzen. Zein da hemen izan duzun bizipena?

S.M.: 2014an heldu nintzen. 1984an jaio nintzen kanpalekuetan eta han ikasi nuen. Gero, Aljerian unibertsitate-ikasketak egin eta Espainiara etorri nintzen 2014an. Urte erdia hemen egiten dut eta bestea han, familia guztia han baitut: emaztea, seme-alabak, gurasoak... Zortea izan dut lasarteoriatar asko baitago Sahararen alde, sahararroi lagundu nahi digu.

Harrera ona egin zizuten, beraz.

S.M.: Bai, Lasarte-Oria bigarren etxea da niretzat. Jende asko ezagutzen dut, askok gure egoeraren berri dute, ekimenak egiten dituzte urtero eta haietan parte hartzen dut.

Galdetzen al dizute aberriaz?

S.M.: Bai. Nire izena galdetu eta sahararra naizela esatean jendeari aurpegiera aldatzen zaio eta laguntzeko prest daudela esaten didate.

Nola bizi duzu zuk hemendik?

S.M.: Nire gorputza hemen dago, baina burua beti han dago. Kezkatuta nago ez dakidalako zer gertatuko den. Bi pertsona izan nahiko nuke, baina bakarra naiz. Bagoaz, bagoaz.

Gatazka bideratuko den itxaropenik ba al duzu?

S.M.: Bai. Azaltzeko hitzak falta zaizkit.

Galdeketa egitea lortuko duzue, beraz.

S.M.: Bai.

M.S.B.: Herri bat badago, zerbait nahi badu, eta elkarrekin badago, helduko da erreferenduma.



Ezker-eskuin: Lierni (irakaslea), Oihane, Nora, Nikola, Aitana eta Xuban. DBH3ko taldeko kideak dira azken bost horiek. TXINTXARRI

Hitz eta errima, jolas eta bertso

Lasarte-Oriako Earra! bertso-eskolan hiru ikasle-talde ari dira lanean 2020-2021 ikasturtean. 'Beteranoekin' elkartu da TXINTXARRI, DBH 3. mailakoekin, eta Lierni Rekondo irakaslearekin ere bai, astez aste egiten dutena gertutik ezagutu, eta bertsoaritzari buruz hitz egiteko

Iñigo Gonzalez Sarobe

Lehenko urtea ondo hasi zen / begiak bete dizdira / baina ilusio eta argia / itzali zitzaigun dida... / gure munduan erdigunea / bihurtu baitzen COVIDa / ta orain irrifar egiten dugu / begietara begira / muxuak delitu dira (bis) / Urte berrira igaro gara / bi metrotako neurrira / bi mila hogei bukatu da ta / aro berri bat hasi da. Irakurri berri duzuen bertso eder hori sortu zuen DBH 3. mailako taldeak urtarrean, Earra! bertso-eskola eta TXINTXARRI aldizkariak aurtengo ikasturtean ekin dioten elkarlanari ekiteko: Aitana, Añes, Nikola, Nora, Oihane eta Xuban dira kideak. Irakaslea, berriz, Lierni Rekondo. Haiekin elkartu gara, 2020-2021 kurtsoan zehar egiten ari direnari buruz gehiago jakiteko.

Ostegun arratsaldea da. Astero bezala, Oriarte Landaberri

eraikinean elkartu dira ikasleak eta irakaslea, bertsoaritzaren unibertsoan ordubetez murgiltzeko. Kazetaria iritsi aurretik, hizkuntza eta teknika lantzeko ariketa batzuk egin dituzte. "Lotsatiak gara", bota dute gazteek, elkarriketa hasi eta segituan. Nabaritzen da denbora daramatela bertso-eskolan lanean -lau urte, LH 6. mailako ikasleak zirenetik-, lotsa hori berehala bota baitute, bertsoan hastera doazenetan bezala. "Munduko bertsoaririk onenak balira bezala abesteko esaten diet", adierazi du irakasleak.

"Asko ikasten dugu, lagun berriak egin, esperientzia berri bat bizi, eskolako beste ikasgai batzuetarako baliagarriak zaizkigun teknikak ikasi...", aipatu du Aitanak. Horra hor izena eman eta lau urtera bertso-eskolan lanean jarraitzeko arrazoiak batzuk. "Taldegiro ederra

daukagu, horrela lan egiteko aukera ematen digu bertso-eskolak", gehitu du Oihanek. Nikola: "Bertsoaritzarena oso mundu aktiboa da, ekintza mordoa antolatzen dira urtero, eta horrek jarraitzea motibatzen gaitu".

Bertso bat nola egin

Bertsoak egiteko urratsak oso barneratuta dituzte ikasleek, galdera entzun eta berehala erantzun baitute. "Doinua ematen zaigu aurrena; ikasi egiten dugu, eta puntu bat egiten dugu, eta horrek errimatzen duten ahalik eta hitz gehienak zerrendatu; koplak horretan kontatu nahi dugunaren arabera, batzuk aukeratu ditugu", azaldu dute Oihanek, Nikolak eta Xubanek.

Bertso-sorta egin eta gero, abestu egin behar. Zer sentitzen ote du bertsolari batek une hori

Otsaileko bertsoa

Doinua: *Zer da gaur Donostian*

Robota, pailazoa,
kiwia, sorgina...
mozorroz estalita
aurtengo ezina,
eskolan ospatzeko
zer nolako grina!
Nahiz eta ez den izan
betiko berdina;
guk disfrutatu dugu
urtero adina (bis).

LH6 taldea: Kimetz, Leire, Luken eta Oier.

iristen denean? "Adrenalina, onerako zein txarrerako", esan du Lierni Rekondok, irakasleak. "Bat-batean ari zarenean bertsoan, adibidez, bertsoak josteko prozesua egin, eta ikusten duzunean dena ongi doala, sekulako sentsazioa da. Aldiz, ez bazaude eroso eta ez bazara ongi ari, presioa sartzen da, barnegatazkak... Bertsoaritzaren oso ahalduzalea izan daiteke, baina autosuntsizalea ere bai". Xubanek gehitu du "urduri" egon ohi dela hasieran, baina abesten ari den heinean lasaitzen doala, eta bukaera "ederra" izaten dela.

Harremantzeko tresna

"Bertsoaritzaren oso diziplina konpletua da: pertsonalki, aukera ematen dizu hausnartzeko, diskurtsoa lantzeko, lotsak eta beldurrak kudeatzeko, enpatia garatzeko... Horrez gain, tresna oso polita da elkar ezagutzeko eta harremantzeko", azpimarratu du Rekondok. "Burua lantzeko ariketa ederra da bertsoetan aritzea: gaiak aztertu, errimak landu, doinuak...

Oso aberasgarria da", gehitu du Norak. Aitana: "Niri, adibidez, ikaragarri lagundu dit jendaurrean lasaiago aritzen eta lotsa ez izaten".

Earra! bertso-eskolak hiru talde ditu aurtun, LH6, DBH1 eta DBH3 mailetan. Hitz eta errimekin, euskararekin jolasean eta bertsoan aritzen dira, talde-giro ederrean, astean ordubetez. Rekondok herritar gazteak animatzen ditu izena ematera: "Etor daitezke bertsozaleak, gaitzaitzaile izan nahi dutenak... Guztiek dute tokia".

Konturatu garenerako, 40 minutuz aritu gara hitz eta pitz bertso-eskolako kideekin. Lotsatiak izateko, ez dago batere gaizki. Agurtu aurretik, talde-argazki bat ateratzeko eskatu diegu, eta hormaren alboan zegoen erratza kentzeko eskatu, traba egiten zuelakoan. Orduan jakin dugu, saioak hasten direnean, erratza mikrofono bihurtzen dela.

Irakurri erreportaje osoa
www.txintxarri.eus atarian

Zudaire, Tokioko Joko Paralinpiarren bidean

Bartzelonako Igeriketa Egokituko Nazioarteko Sarian lehiatu da Buruntzaldea IKTko igerilaria eta 400 m. libre proban, S8 mailako Espainiako errekorra egiteaz gain, Tokioko Joko Paralinpikoetarako gutxienerako B marka eskuratu du

Txintxarri

Bartzelonan lehiatu da otsailaren 20an eta 21ean Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire. Bartzelonako Igeriketa Egokituko Nazioarteko Sarian Euskadiko selekzioarekin parte hartu du hiru probetan: 200 metro eta 400 metro libre eta 100 metro tximeleta. Hiru probetan lehenen artean ibili zen arren, azpimarragarria da 400 m. libreetan egindako lana.

Larunbatean 400 m. libre proba jokatu zuen igerilari gazteak. Bigarren postuan amaitu zuen, 5.06,21eko denbora egin eta bere marka onduz. Sari bikoitza ere izan zen Buruntzaldea IKTko igerilariarentzat, S8 mailako Espainiako errekorra ezarri eta Tokioko Joko Paralinpikoetarako gutxienerako B marka lortu baitzuen.

Igandean, berriz, 200 metro libre eta 100 metro tximeleta probetan lehiatu zen. Goizeko sailkapen probak gainditu eta finaleran izan zen. Tximeletako proban bigarren sailkatu zen 1:24,39 markarekin eta estilo libreko proban, berriz, hirugarren



Zudaire, Espainiako errekorren kanpaia jotzen. BURUNTZALDEA IKT

izan zen 2.31,68an kronoa geldituz.

Ezusteko "pozgarria"

Nahia Zudaire gazteak irakurketa ona egin du Bartzelonako txapelketaren gainean. "Larunbatean, 400 m. libre proban gustura igeri egin nuen. Beste bi probetan, ordea, aurreko

eguneko tentsioa nuen gorputzean eta zail egin zitzaidan hori kudeatzea". Hala ere, horietan egindako lanarekin ere gustura dagoela nabarmendu du Zudairek.

Izan ere, Buruntzaldea IKTko igerilaria ez baitzen nahi zuen bezala iritsi txapelketara. "Ez nengoen eroso azken egunetan egindako entrenamenduekin, eta nire burua ere ez zegoen guztiz zentratua".

Horregatik, 400 metro libre probako marka, hein batean, espero ez zuela onartu du Buruntzaldea IKTko igerilariak. "Banekien lana egin nuela eta horrek emaitza bat emango zuela. Jakitun nintzen borrokan egon ahal nintzela. Jokoez eta gutxienerako lortzeak bertigoa ematen dute, eta, nire kasuan, txapelketa baino hiru edo lau egun lehenago hasi nintzen beldur hori sumatzen entrenamenduetan".

Egunean bertan ere beroketetan ongi sumatu ez zela aitortu du; proban, ordea, guztia ematea erabaki zuen, eta emaitza paregabea izan zuen. "Emaitza

azkenean ezustekoa izan da, baina esperotako zerbait ere bada".

Gainera, 400 metro libreko proba osteko momentuak dramatikoak izan zirela kontatu digu. "Ez zegoen denbora markatzen zuen ezer, markagailua puskatua zegoen. Nik pareta ukitu, eta Euskadiko selekzioa kideak oihuka eta besarkatzen ikusi nituen eta lagun batzuk ere 'Ongi Nahia!! Ongi!!!', oihukatzen zeuden. Eurei begiratu eta buruarekin baiezkoa egin nien, haiek baietz erantzun zidaten... Haiek esandakoaz fio nintzen, ez zen ziurra. Behin betiko emaitzak eman zituztenera arte, beraz, dramatikoak izan zen".

"Bideaz gozatu"

Oraindik Joko Paralinpikoetarako gutxienerako marka lortu duela onartzea kosta egiten zaiola adierazi digu. "Pauso handia eman dut eta bizi nahi nuen esperientzia bat gertuago dut", aipatu du.

Marka lortuta ere, Tokioko joateko gaztea dela pentsatzen du Zudairek. "Nire lehenengo jokoak izan daitezke, eta 16 urte ditut. Hori ez dut ahaztu behar. Horregatik nire adina kontuan izanda prestatuko dugu lehia eta disfrutatuko dut bidea".

"Nire lehen Jokoak izango dira. Ez da beste txapelketaren modukoa izango, ez da presio bera izango. Nondik gatozen eta gure helburua zein den jakinda; burua galdu gabe... Dena etorriko da. Ikastea eta bidean disfrutatzea

da garrantzitsuena orain", atxiki du.

Hala ere, gutxienerako B marka horrek ez dio plaza olinpikoa ziurtatzen, baina, A marka lortzen dutenen plazak betetzen ez badira, aukerak ditu Zudairek Tokion egoteko. "Duela sei hilabete marka hori lortzea ezinezkoa zela esango nizuke, baina ezin da ezinezkoa esan... Orain A marka lortzen edo gerturatzen saiatuko naiz; Jokoetarako txartela ziurragoa izango litzateke orduan. B plazak ez du %100 ziurtatzen Tokion egotea", aipatu digu.

Espainiako paralinpiar taldeak 24 igerilari eraman ahalgo ditu Tokiora; hamabost gizonezko eta bederati emakumezko. Egun, bost igerilari bakarrik dituzte A markak eta bederatzik, berriz, B markaren bat, Zudaire horien artean. A marka lortzeko bi txapelketa nagusi izango dituela aurreratu du igerilari gazteak: Espainiako Txapelketa eta Europako Txapelketa. Europako Txapelketa "ahalik eta ongien egoteko" prestatuko dutela nabarmendu du. "Marka errepikatzea oso ondo egongo litzateke, eta jaisten badut, primerakoa".

Jokoetara joateaz gain, marka horrek beste gauza asko esan nahi dituela ere azpimarratu du Buruntzaldea IKTko igerilariak. "Azken urte eta erdian egin dugun lan eskergarengatik asko ikasi dudala da niretzat garrantzitsuena. Lazko urte txarraren ostean, guztia gainditu izana, egoera kudeatzea jakin eta hori lortzea niretzat handia izan da".

Maialen Chourrautek, garaipen bikoitza Espainiako Kopan

Lasarte-Oriako piraguista ederki itzuli da lehiaketara eta Mondarizen jokatu diren bi probetan garaile izan da

Txintxarri

Maialen Chourraute herritarra eta eslalom diziplinako piraguistak zorioneko daude. Urtebetez Espainian lehiaketarik gabe egon ostean, asteburu honetan, lehiaketa denboraldiari eman zaio hasiera. Mondarizen, Pontevedran Espainiako Eslalom Kopako lehen proba jokatu dute.

Chourrautek Tokioko Joko Olinpikoak prestatzeko bidean darrai, eta orain artean, azaroan

jokatutako Munduko Kopako lehiaketak bakarrik jokatu ahal izan ditu. Nahiz eta lehiaketa gutxitan parte hartu, bere prestaketa bide onean doala erakutsi zuen Mondarizeko kanalean eta garaile izan zen K1 mailan.

Lehen proba honetan bi lehiaketa ezberdin jokatu ziren, bata larunbatean eta bestea igandean. Eguraldiari aurre eginez, bai sailkapenetan, baita

finaleran ere nagusi izan zen olinpiar dominadun Chourraute.

Larunbateko lehiaketan, ederki ibili zen sailkapen saioan eta 89,59 segundoko denbora eginez lortu zuen finalerako txartela. Arratsaldeko finalean, berriz, arazotxo bat izan zuen bederatzigarren atean eta bi segundoko zigorra izan zuen. Chourrautek ezin izan zuen goizeko denbora hobetu; 91,67ko denborarekin garaipena erdietsi zuen, ordea.

Igandean ere berdin gertatu zitzaion olinpiar txapeldunari. Sailkapenean lasai jaitsi zen eta ez zuen akatsik egin, baina finalean bi segundo gehitu zizkioten hemeretzigarren atean izandako ezusteko batengatik. 102,11 eta



Maialen Chourraute, Mondarizeko kanalean lehiatzen. RFEF

95,49 egin zituen sailkapen saioan eta finalean, hurrenez hurren.

Dena ongi bidean, martxoaren 6an eta 7an, ongi ezagutzen duen

La Seu D'Urgellen lehiatuko dute Kopako bigarren jardunaldia eta maiatzean hirugarrena, oraindik zehazke dagoen kokaleku batean.

Ttakun

Kultur Elkartea
1991-2021

Ttakun 30 urte

EGIN ZAITEZ BAZKIDE! 54€ urtean

Euskara eta kultura bidelagun!

zuk

54€
urtean

ordaindu

guk

Euskara eta
kultura
sustatuko
dugu

Errenta
aitorpenean

%20ko
kenkaria
izango duzu



Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian
On-line egiteko: www.txintxarri.eus/bazkidetu

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ Jaiotze data: _____


Helbidea: _____ Herria: _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkarteak urtean
zehar antolatzen dituen ekital-
dien eta zozketen berri jaso nahi dut
emailez

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideez irauten duen bitartean edota betebeharrak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharrak legala dagoen kasuetan ezik. Honez gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkidezkak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Furundarena, Espainiako onenen artean

Ostadar Atletismoa saileko Naroa Furundarena pista estaliko maila absolutuko Espainiako txapelketan parte hartu zuen otsailaren 21ean. Jauzi hirukoitzeko proban Espainiar Estatuko onenen aurka lehiatu eta zazpigarren postuan sailkatu zen

Txintxarri

Aurreko astean ez bezala, Naroa Furundarenak ezin izan du absolutu mailako Espainiako txapelketatik dominarik ekarri. Zail zuen, ordea, atleta gazteak. Jauzi hirukoitzeko bosgarren markarik onena bazuen ere, 13 metrotik gorako jauzi batek bakarrik emango lioke domina. Hala ere, Ostadar Atletismoa taldeko kidea Madrilen antolatutako txapelketan bere onena emateko prest zegoen.

Furundarenak, ordea, ez zuen duela astebete 23 urtez azpiko txapelketan erakutsitako sasoia izan, eta ezin izan zen bere marka pertsonalera gerturatu.

Hiru baleko jauzi egin zituen bakarrik herritar gazteak, guztiak 12,20 metroetatik gora, eta bigarren jauzian lortu zuen emaitzarik onena, 12,25 metro. Marka horri esker, 2020. urtean bezala, zazpigarren postua eskuratu zuen Furundarenak.

Oscar Goikoetxea Atletismo Saileko arduradunak nabarmendu duenez, "Naroa Furundarenak lortutako emaitza oso ona da. Are gehiago, kontuan izan beharreko balentria da, Naroak 19 urte besterik ez baititu".

Era berean, atleta gazteak lorpen handiz betetako pista denboraldiari agur esan eta



Naroa Furundarena, entrenamendu batean. Artxiboko irudia. TXINTXARRI

itxaropenez betetako aire zabaleko denboraldia prestatzeari ekingo diola jakitera eman du Atletismo saileko prestatzaileak.

Markak ontzen

Bestalde, Donostiako Antonio Elorza belodromoan 20 urtez azpiko, 18 urtez azpiko eta 16 urtez azpiko atletek kontrol-marken txapelketa izan zuten eta Ostadar Atletismo saileko kideetako batzuk lehenen artean egon ziren eta euren markak ondu zituzten.

Enara Gonzalez 20 urtez azpiko mailan luzera-jauzi probako garaile izan zen denboraldiko

marka eginez, 5,37 m. eta 60 m. proba, berriz, hirugarren (8"30).

Leire Centeno ere maila berean lehiatu zen, baina 800 metroetako proban. Hirugarren izan zen 2.44,52ko denbora eginez eta denboraldiko marka hobetu zuen.

Alex Alkainek eta Unax Riezuk 16 urte azpiko mailako bigarren eta hirugarren postua lortu zituzten, hurrenez hurren. Eta biek euren marka pertsonalak ondu zituzten; Alkainek, 7"76, eta, Riezuk, 7"84. Nora Caspistegui, berriz, maila horretako lehen izan zen altuera-jauzian, 1,35 m.

Eremu gorritik atera ostean, eskola-mailako kirola martxan

Bultza Kirola egitasmoak lanean jarraitzen du Eusko Jaurlaritzak kirola funtsezko jardueratzat har dezan

Txintxarri

Lasarte-Oriak hilabete gune gorrian igaro ostean, eremu laranja igaro zen lehengo asteko asteartean. Ondorioz, herriko eskola mailako kirola martxan jarri da. Hainbat kirol-elkartek lehengo astean bertan eman zioten hasiera saioei. Eskola Kirola egitasmoa otsailaren 23an hasi zen, astelehenarekin.

Jardunak aurrera jarraituko du Lasarte-Oriako intzidentzia-tasa 500 baino gutxiagokoa bada. Berrero ere puntu horretara iritsiz gero, eskola-mailako kirolak eten berria jasango luke. Hori bai, azken bi etenetan bezala, Landaberri ikastolako, zein Sasoea-Zumaburu ikastetxeko Eskola Kirola egitasmoa haur eta gaztetxoek etxean kirola egiteko aukera izango dute *Sakatu* dinamikaren bitartez.

Aldarrikapenekin jarraitu

Hala ere, Bultza Kirola egitasmoa lanean ari da maila horretako

kirol-jardunean eten berria gerta ez dadin, eta ostalarren antzera, bide judiziala hartzea aztertzen ari dira. Zain daude. Espainiako Kongresuak kirol-jarduera funtsezkotzat onartu baitzuen otsailaren 18an. Eusko Jaurlaritzak eta LABik ere gauza bera egiteko esperantza dute.

Otsailaren 15ean kaleratutako oharrean, euren eskaera berretsi, eta Euskal Gobernuak jarraitzen dituen *Bizi Berri* planaren "inkoherentziak" salatu zituzten.

Era berean, kirol-praktika uzteari eta pandemia-hilabete hauetan egon diren kutsatzei buruzko azterlana egin du plataformak. Bertan kirol elkartetako kideetatik %20,94ak kirola utzi duela ondorioztatu dute, baita kutsadura kasuak urriak izan direla ere. Euren datuen arabera, 2020 urtetik hona, kirol jarduerara egitean zero eta hiru kutsatu artean izan dituzte kirol-elkartek.

Ordutegiaren aldaketak martxoko jardunaldietan

Donostiako Hipodromoak jakitera eman duenez, negu-udaberriko ezohiko denboraldiko martxoko jardunaldietan ordutegi-aldaketak egongo dira.

Jardunaldi guztiak 11:15ean hastekoak baziren ere, negu-udaberriko denboraldi berriko lehen lasterketa goizeko 10:05ean jokatuko da martxoaren 12an;

martxoaren 19ko jardunaldiari 09:35ean emango zaio hasiera eta 09:20ean martxoaren 26koari.

Ezohiko denboraldi horrek beste jardunaldi bat izango du, apirilaren 2an. Aldaketarik egon ezean, hori 11:15ean hasiko da.

Era honetara, zaldi-lasterketen zaletuek guztira Hipodromoan lehiatuko diren hogeitaz probaz gozatu ahalko dute martxoan eta apirilean. Oraingoan, COVID-19aren aurkako neurriak direla-eta, etxetik egin beharko dute jarraipena.

Intzako seniorrek Ezker Hormako Liga amaituko dute

Bihar, larunbata, Gaztelekuren aurka jokatuko dute. Martxoaren 14an, berriz, txapelketako finalerdia dute

Txintxarri

Intzako KEko pilotariek hurrengo asteetan berrekingo diete lehiaketei.

Lehena, bigarren mailako senior bikotea izango da. Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak

osatutako bikoteak larunbat honetan Ezker Hormako txapelketako ligari amaiera emango dio. Andoinen jokatuko dute partida Gaztelekuren aurka.

Intzako bikoteak eskuan du dagoeneko txapelketako bigarren

faserako txartela, baina Etxezarreta eta Arrateren aurkako partidaz baliatuko dira, berrero ere, lehiaketari maila hartzeko.

Izan ere, martxoaren 14an, txapelketako finalerdia jokatuko baitute oraindik zehazteke dagoen arerioaren aurka.

Banakako lehiak

Dena ondo bidean, martxoaren 7an, trinketa eta lau eta erdiko txapelketen txanda izango da.

Trinketako lehiak Intzako Haritza Diaz de Gereñu eta



Intzako senior bikotea, jokoan. TXINTXARRI

Hernaniko taldean dagoen Peru Urdanpilleta herritarra izango dira. Kadete-mailan ariko dira.

Etena baino lehen, Urdanpilletak txapelketako lehen partida jokatuko, eta 30-12 garaitu zuen bere taldekide Alegria. Diaz de Gereñuk, aldiz, atsedena izan zuen lehen jardunaldian eta bigarren jardunaldiko partidari egingo lioke aurre.

Bestalde, Jon Pello Artetxe seniorrak lau eta erdiko txapelketako bigarren mailako lehia hasiko luke.


ZORION AGURRAK



Aiora
Zorionak Aiora!! Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean. 6 muxu handi familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu!!!



Udane
Zorionak maitia, 5 urte haundi!! Txokolatezko muxuak Elaia, amatxo eta aitatzaren partetik. Maite zaitugu!!



Urko
Zorionak pottoko!! Aurten 5 urte betetzen dituzu. Segi beti bezain alai eta pozik. Muxu asko etxeke guziten partetik!!

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 26	DE MIGUEL	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
LARUNBATA, 27	GIL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 28	GIL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 1	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 2	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 3	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 4	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta
Bidali zure zorion agurra
formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan
argitaratuko da webgunean eta
ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera,
eta idatzi: izen-abizenak,
urtebetetze-eguna eta nahi
duzun testua.
Ez ahaztu irudiaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra.

JAIOTAKOAK

Eneritz Larrañaga Chinchilla. Otsailaren 21ean.

Lucas Sasselli Gonzalez. Otsailaren 21ean.

Luken Rubio Martin. Otsailaren 18an.

HILDAKOAK

Paula Olivares Manjon. Otsailaren 23an.

Jose Luis Gonzalez Mayo. Otsailaren 23an.

Concepcion Gines Sanchez. Otsailaren 21ean.

M^a Carmen Jauregui Barandiaran. Otsailaren 20an.

Julia Menendez Hermoso. Otsailaren 20an.

Pedro Ignacio Telletxea Miron. Otsailaren 20an.

Juan Mari Artola Kortajarena. Otsailaren 19an.

SUDOKUA

	6		2		9		1
		8		4		6	2
1		2	6			5	4
		7	3				8
3	8			2			
	5	1	8		9	4	
7			4	8			6
		3	7			4	9
	4	6			5	1	7

OHARRA

Itoiz taldeari buruzko material bila

Itoizi buruzko luzemetraia bat prestatzen ari da Doxa Producciones ekoiztetxea. Ikus-entzunezko hori osatze aldera, musika talde horrekin lotura duen material bila ari dira: kontzertuetako argazkiak, artikuluak, bideoak, grabazioak... Lasarte-Orian, 1983an, autodromoan eskaini zuten kontzertua. Lasarteoriatarren batek emanaldi horren edo beste emanaldiren bateko horrelakorik izango balu, harremanetan jar liteke ekoiztetxearekin, archivo@doxaproducciones.com helbide elektronikora idatzita.

Doxa Produccioneseko kideek zehaztu dutenez, material hori profesionalak edo afizionatuek egina izan liteke, kalitate handiagokoa edo txikiagokoa

GUTUNAK

Ez gaitzabela engainatu! Betiko aurpegia dute!

BURUNTZALDEAKO EZKER ABERTZALEA (ERNAI/SORTU/LAB)

Atzo telebistan, gaur irratan eta bihar markesinan. Etengabe, goiz eta arrats, komunikabide eta sare sozialetan; ertzaintzaren 700 plaza berri, duintasuna alde batera utzi eta herria saldu nahi duenarentzat.

Garai berriez eta bizikidetzaz ari zataizkigu, baina PNVren apustua garbia da; guztiz gaindimentsionatuta dagoen Ertzaintzaren instituzioa handitu eta indartzea. Instituzio honekiko jasaten ari garen zuriketa kanpaina eta propaganda ikaragarria da, euren irudia eta lana normalizatze saiakerara garbia dago, normala izatetik oso urrun dagoen arren. Ezin dugu normalizatu Ertzaintza izatea, zure bizilagunak eta herritarrak jipoitzea, jazartzea zein torturatzea normalizatu ezin diren era berean.

Pandemia, arazo bat baino, aukera bat izaten ari da PNVrentzat eta haren ertzaintzarentzat. Egungo testuinguruan beharrezkoak diren segurtasun neurrien aitzakipean, kontrol maila izugarri handitzeko eta gehiegikerietarako leiho paregabea ireki zaie. Probatzen ari dira, ea norarte estutu gaitzaketen, ea norarte eusten

dugun, eta ez dezagun pentsa pandemiari aurre egiteko neurriak direnik, ez, pandemiak euren boteretzera ahalbidetu badu ere, orain onartzen ditugun jarrera oldarkorak geratzeko helburuz etorri dira, egungo kontestutik haratago doaz.

Egoera honetan, Ezker Abertzaleak hasieratik azaleratu du herritarron osasuna krisiaren erdigunean jartzeko beharra. Kohereziaz eta zuhurtziaz jokatu du bere jardun politikoa aurrera eramatean, eta PNVk zein komunikabideek ederki asko dakite hori, horregatik erabili nahi izan dute poliziaren jokabidea lehia politikoa arma gisa; haien kudeaketa lotsagarria alboratu asmoz, Ezker Abertzalea interpelatu nahi izan dute.

Hori gutxi balitz, Ertzaintzak biolentziaren hegemonia duela erakutsi nahi izan du, herritarren jokabideak kriminalizatu eta eskubide ororen gaintetik daudela garbi utziz. Horren adibide dira azken asteotan sare sozial zein hedabideetan ikusitako hainbat irudi; haien lanpostuen galeragatik protestan ari ziren ITPko langileen elkarretaratzean sindikalistari sudurra hautsi ziotenekoak, edota Donostiako Alde Zaharrean ikusitako aktuzio zentzugabeak.

Lehen “entrar con todo lo que tenemos” esaten zuten era berean, orain “vamos a tirar a dar” diote Donostiako Alde Zaharrean gazte bati matrailezurra hautsi aurretik. Esaldi horien ondorioak jakinak dira: Iñigo Cabacas, Rosa Zarra, Anne, Nahuel Gomez, Kontxi Sanchiz edota Remi Aiestaran. PNVk ez badu ertzaintza zehatzen horrelako kasuetan, ertzaintzaren gehiegikeriei onespina ematen ariko zaie.

Indar polizialen irudia zuritzeko ahaleginetan dabilta, pandemiari aurre egiteko salbatzaileak bailiran, baina boterea eman zaien unean bertan erakutsi dute betiko instituzioa izaten jarraitzen dutela, eta euren partetik jipoiak, atxiloketak, ala abusuk besterik ezin ditugula espero. Hala erakusten dute, bederen, azken gertakariak.

Garai berri baten kondaira eta ohiko lanbide bat saldu nahi badigute ere, argi dago betiko aurpegia dutela; elite ekonomiko eta politikoko konkretu baten interesak babesteko euren bizilagunak eta senideak jipoitu eta hiltzeko prest dauden BORREROAK.

EZ GAITZATELA ENGAINATU, ez da beste lan bat gehiago. Ozen esan nahi dugu ez gabela geldirik geratuko, orain, inoiz baino gehiago, indarrak batu eta ertzaintzaren gehiegikeriei ateak itxi eta erantzuteko unea dela.

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAITZA

Biyak Bat adinekoen egoitzak bi langile behar ditu: podologo bat eta gizezkoen ile-apaintzaile bat. Gainera, taberna kudeatzeko langileak ere behar dituzte. Interesatuak egoitzara hurbildu behar dira astearteetan eta ostegunetan 10:30etik 12:30era.

ESKARIA

Neska euskaldun bat eskaintzen da astean bi egunetan eta arratsaldean etxeko lanak egiteko edota umeak zaintzeko. Harremanetarako zenbakia, 646 48 58 11. Haurrak zaindu, etxeko lanak egin, orduka pertsona adinduak zaindu edo tabernetako garbiketa lanak egiteko pertsona eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Pertsona eskaintzen da umeak zaindu, etxeko garbiketarako, leihoak garbitu, arropa lisatu, orduka adindun pertsonak zaindu edo eurekin pasieran ibiltzeko. Harremanetarako zenbakia, 666 09 67 61.

Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketa lanak egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak

egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaleetan gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

SALEROSKETA

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ESKELA

ESKELA

M^a Carmen Jauregui Barandiaran

(Iñigo Gonzalez Sarobe lankidearen amona)

-Goian bego-

2021eko otsailaren 20an hil zen, 92 urte zituela.



Besarkada handia familiari

Ttakun eta Txintxarriko lankideak

ESKELAK JARTZEKO: 646 82 44 66

edo

PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS

- Hileta egunean eskela Txintxarri. eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

ZOKKETA

Urtarrileko zozketak badu irabazlea



Begoña Peña, saria eskuan duela. TXINTXARRI

Ttakun Kultur Elkarteak urtarrilean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan Amaren intxaurrak disko-liburua zozkatu du izena ematen duten bazkideen artean. Zortekoa Begoña Peña izan da. Zorionak!!!

Hurrengo egunetan, berriz, bi zozketa egingo ditu kultur elkarteak. Abendutik hona bazkide egin diren herritarrek Errigorako otar bat irabazi ahaliko dute; bazkideen artean, berriz, hilabeterako zozketa egingo da eta Xiberoako ikastolak laguntzeko saski bat da saria. Adi egon, beraz!!

MANTTANGORRI HIRIBUSA

Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Julene Iraola eta Uxue Odriozola,
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza,
Jose Lanchas, Iñigo Garcia eta
Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Otsaileko azken ostirala izanik, hilabetero ohi egin duen bezala, euskal presoen egoera kalera aterako du Lasarte-Oriako presoan aldeko batzordeak. Elizatze plazatik Okendo plazara, euren aldarriak zabalduko dituzte.

Elizatze plaza, 20:00etan.

ANDOAIN Kontzertua

Francisco Escudero Kontserbatorioko Orkestra Sinfonikoak emanaldia eskainiko du Garikoitz Gonzalez Mendizabalek zuzenduta. Sarrera doakoa da, baina gonbidapena jaso behar da aurretik. Interesatuak Kutxabank bidez eskuratu ahal izango dituzte sarrerak edo Basteroko leihatilan, 10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era. Bastero Kulturunea, 19:15ean.



LASARTE-ORIA Bizikidetzaren jardunaldiak

Lasarte-Oriako Udalak Bizikidetzaren jardunaldiak antolatu ditu. Bi saio izango dira martxoaren 3an eta 4an. Lehen egunean, *Zubiak* dokumentala izango da ikusgai eta Maixabel Lasarekin solasaldia izango da. Lan horretan Maixabel Lasak, Juan Mari Jauregiren alarunak, Ibon Etxezarreta bere senarraren heriotzaren parte hartu zuen ETako kidearen elkarriketa erakusten da. Bigarren egunean, berriz, *Indarkeria polizialaren biktimen aitortza eta erreparazioa* mahai-ingurua egingo da. Zuzenbideko doktoretza eta Kriminologiako masterra duten Ana Isabel Perez Machio eta Laura Pego Otero izango dira hizlari moduan. COVID-19a saihesteko neurriak direla-eta, gonbidapenak behar dira ekitaldietarako; pertsonako, gehienez, bi.

Manuel Lekuona, asteazkena eta osteguna, 18:30ean

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Argi Iturralde eta Iñaki Balerdiren heriotzaren 18. urteurrena gogoan izateko, Teresategira mendi-martxa antolatu du Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak. Ekimenari amaiera emateko, 12:00etan, argazki erraldoia egingo dute Okendo plazan. Lasarte-Oria, 10:00-12:00.

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Saharar herriaren aldeko Maroko Saharatik at. Independentzia! elkarretaratzea egingo da. Sahararekin elkatasuna Lasarte-Oria taldeak antolatuta.

Okendo plaza, 20:00etan.

IGANDEA 28

ASTIGARRAGA Antzerkia

Txalo produkzioak 20.000 legoa

itsaspeko zaborretan lana eskainiko du. Sarrerak: adin txikikoek, 3 euro; helduek, 6 euro.

Erribera kulturunea, 17:00etan.

ASTEAZKENA 3

LASARTE-ORIA Jardunaldia

Bizikidetzaren Lantzen jardunaldien lehen saioan, *Zubiak* dokumentala eskainiko dute. Ostean, Maixabel Lasarekin solasatu ahal izango dira hurbildutakoak.

Manuel Lekuona, areto nagusia, 18:30ean.

OSTEGUNA 4

LASARTE-ORIA Jardunaldia

Bizikidetzaren Lantzen jardunaldien bigarren saioan, *Indarkeria polizialaren biktimen aitortza eta erreparazioa* mahai-ingurua.

Manuel Lekuona, hitzaldi aretoa, 18:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Ziaboga

Ostirala: 19:00.

Elfkinak

Igandea: 17:00.

ANDOAIN

BASTERO

Los Croods: una nueva era

Igandea: 16:30.

Mi niña

Igandea: 19:00.

Astelehena: 19:00.

HERNANI

BITERI

Tabuga y la princesa de hielo

Larunbata: 16:00.

Igandea: 16:00.

Falling

Larunbata: 19:00.

Igandea: 19:00.

Astelehena: 16:30.

LABURPENA

Ziaboga

Zuzendaria, gidioa eta muntaia: Iñaki Pinedo. **Argazkia:** Jesus A. Calvo. **Musika:** Gorra Hermosa, Landerak, Aitor Furundarena, Tadasak, Chema Puente. **Herr.:** Euskal Herria (2019). **Iraupena:** 74 minutu.



Arrantza lehia bilakatu zenekoa

Iñaki Pinedok zuzendutako *Ziaboga* dokumentalaz gozatzeko aukera berria izango da, gaur, 19:00etatik aurrera. Abenduan Antonio Oliden Lasarte-Michelin traineruko patroari eta eskifaiko kideei egin zitzaizkien omenaldian ikusi ahal izan zen dokumentala. Emanaldiak izan zuen arrakasta ikusirik Lasarte-Oriako Udalak berriro eskainiko du lana.

Ziaboga dokumentala traineruen historia jorratzen du. Arrantzan egiteko bateletatik gaur eguneko lehiaketarako trainetara egon

den garapena erakusten du, zehazki, 40ko hamarkadatik gaur egun arte doan garaia.

Hori guztia, gainera, bere protagonisten ahotsean kontatzen du eta, besteak beste, Antonio Oliden herritarraren, Jose Luis Kortaren edo Andrea Oubiñaren testigantzak jasotzen da ikusentzunean.

Era berean, Galiziatik hasi eta Hondarribira trainerek kostaldeko herrixketan izan zuten eta egun duten garrantzia ere agertzen du dokumentalak.

LABURPENA

Elfkinak

Zuzendaria: Ute von Münchow-Pohl. **Gidoia:** Jan Strathmann. **Musika:** Alex Komlew. **Arte zuzendaria:** Heiko Hentschel. **Animazio zuzendaria:** Amnon Schwarz. **Herr.:** Alemania (2020). **Iraupena:** 78 minutu.



Elkar laguntzearen garrantzia

Haurren zinema atalean, etxeko txikiek *Elfkinak* animaziozko filmaz gozatu dute.

Ute Von Münchow-Pohl zinemagile alemaniarraren animaziozko proposamen berria da *Elfkinak*. Zuzendari modura, bere zortzigarren animaziozko filma du. Gidoilari, animatzaile edo arte zuzendari lanak ere egin ditu beste hainbat filmeetan.

Elfkinak 200 urte baino gehiago daramatzate lur azpian bizitzen. Lurrazaleko mundutik ezkatututa egon dira eta gizakiekin ez dute

inolako harremanik izan. Halako batean, hiru elfkin abenturazalek lurrazalera igotzea erabaki dute. Elfiek, Kippek eta Buckek abentura ederra biziko dute. Izan ere, Elfie txikia Teo gozogilearen lagun egingo baita. Gizon erretxin samarra da Teo, baina berak gogoraziko die elfkinei zein den euren bizitzako helburu nagusia: besteei laguntzea!

Zineuskadik sustatzen duen Zinema Euskaraz programari esker, euskaraz ikusi ahal dute etxeko txikiek.



Ate Irekiak
Martxoak 10

HARTU
HITZORDUA!!!

USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
CIFP USURBIL LHII

943 364600
adkomunikazioa@lhusurbil.eus

Erdi Maila: 17:00
Goi Maila: 18:00

www.lhusurbil.eus



ELECTRICIDAD ARREGUI

Etixerako LED PLAFOI argiak
Diseinu berritzaileena | Argi eta intentsitate erregulatzailerekin

600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

Material elektrikoa • Argiak • Etxetresna elektrikoak • TB/HI-FI • Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

LED bonbilla esferikoa
Smart WIFI



txintxarri
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

“KRISI GARAIAN,
PUBLIZITATEA DA
INBERTSIORIK
ONENA”

**HORREGATIK... DESKONTU BEREZIAK DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT**

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66